

KIROL ETA AISIA ARLOETAN HAUR ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO EGUESIBARKO UDALAREN JARDUTE PROTOKOLOA

AURKIBIDEA

- 1.-Sarrera
 - 2.-Aurrekariak
 - 3.-Oinarrizko kontzeptuak
 - 4.- Adingabeak babesteko ordezkaria
 - 5.- Aplikazio arloak eta erantzukizunak
 - 6.- Prebenitzeko jarduerak jarduerak eta arriskuen analisia
 - 7.- Esku hartzeko jarduerak
 - 8.- Jarraipen-jarduerak (monitorizazioa)
- I. eranskina.- Eskabide-eredua
- II. eranskina. - Adingabeak babesteko Ordezkariaren izendapena

1.-Sarrera

Aurkezten dugun dokumentua Eguesibarko Udaleko Kirol Zerbitzuak egindako protokolo bat da, Nafarroako Kirol Institutuak (NKI) prestatutakoa oinarri hartuta eta Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin (NGI), Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin (INAI) eta Migrazio Politiken eta Justiziaren Departamentuarekin lankidetzan. Protokolo hori nahitaez bete behar dute adingabeekin lan egiten duten erakunde guztiek, Eguesibarreko kirol eta aisialdi arloan, 8/2021 Lege Organikoaren arabera (47. artikulua). Arau-esparruarekin eta legea betetzeko eratorritako betebeharrekin lotutako aldeak jasotzen dira, administrazio publikoei eta kirol eta aisialdi erakundeei eragiten dietenak, bai eta protokoloa ere, eranskinekin.

“Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean modu integralean babesteko”, Ekainaren 4ko, 8/2021 Lege Organikoak (HNIBBILO), agindu batzuk betetzera behartzen ditu administrazio publikoak eta kirol eta aisialdi erakundeak, ingurune seguruak sortzeko eta adingabea indarkeriaren aurrean integralki babesteko (HNIBBILO, Kirolaren eta aisialdiaren esparruko IX .a, 47. eta 48.a) art.

LGTBI+ eta Pertsonen Gizarte Berdintasunari buruzko 8/2017 (35z artikulua) eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko 17/2019 (29.e artikulua) foru-legeek ere protokoloak egiteko beharra ezartzen dute.

Horrek aurrerapen handia ekarri du Espainiako haur eta nerabeen babesaren arloan, garrantzi handiko legeria duen munduko lehen herrialdea baita. Zalantzarik gabe, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko arau mugarrria da HNIBBILO, baina arau-esparruak geroko garapen osagarria eskatzen du, bai estatuan, bai autonomia erkidegoan. Orain, funtsezkoa da legeak hainbat arloetan sartu dituen mekanismo guztiak abian jartzea, besteak beste, kirol arloan, eta inplikaturako eragile guztiek lege hori eta legearen ondoriozko betebeharrak ezagutzea. Protokolo hau Eguesibarko Udalak garatutako barneko eta kanpoko jarduera guztiei aplikatu dakieke, bai eta udala osatzen duten pertsona guztiei ere: kirolariei, zuzendaritzako langileei, teknikariei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei, erakundearekin duten lotura, lan harremana edo kontratu tipologia edozein dela ere.

2.-Aurrekariak

"Child Abuse in Sport Europe an Statistics" CASES izeneko proiektua, Europako sei herrialdetako unibertsitateek eta Espainiakoak (Espainiako VIC Unibertsitatea) sustatutakoa.

"CASES" azterlanaren emaitzetan sakontzean, eta indarkeria konplexuagoari buruzko sailkapen baten arabera, ikusten da lanean jarraitu behar dela kirol testuingurua egunetik egunera hobea izan dadin; izan ere, dagoen kirolaren pertzepzio hain positibo horrekin, pertsonen arteko indarkerien prebalentzia % 70ekoa da indarkeria psikologikoaren kasuan, % 43koa indarkeria fisikoaren kasuan, % 36koa kontakturik gabeko sexu-indarkeriaren kasuan, % 34koa zabarkeriaren kasuan eta, azkenik, % 20koa kontaktua duen sexu indarkeriaren kasuan.

3.-Oinarrizko kontzeptuak

Indarkeriatzat hartzen da adingabeei beren eskubideak eta ongizatea kentzen dien ekintza, ez-egite edo tratu zabar oro, baldin eta garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen badu, edozein dela ere haien egiteko modua eta bitartekoa, informazio eta komunikazio teknologien bidez egindakoa barne, bereziki indarkeria digitala "(HNIBBILOaren 1.2 artikulua).

Nolanahi ere, honako hauek joko dira indarkeriatzat:

Tratu txar fisikoa. Zuzeneko eraso fisiko baten bidez, kaltea eta/edo lesioa eragin daiteke, hala nola kolpeak, bultzadak, ostikoak, besteak beste.

Entrenamenduaren intentsitatea eta lehiaketan exijentzia. Entrenamenduak edo lehiaketek kirolariaren gaitasun fisikoak eta heldze-gaitasunak gainditzeko dituztenean, haren osasuna eta ongizatea arriskuan jarritik, tratu txar fisikotzat hartzen da.

Dopatzeko substantziak erabiltzea. Errendimendua hobetzeko presioak substantzia dopatzaileak

erabiltzera eraman ditzake kirolari batzuk, eta hori kaltegarria izateaz gain, tratu txar fisikoen eta kirol etikaren urraketaren modu bat ere bada.

Lesioak dituzten lehiaketetan parte hartzeko betebeharra. Kirolari bat lehiaketetan parte hartzera behartzen denean, lesioak izan arren, bere osasuna arriskuan jartzen ari da eta bere ongizate fisikoa alde batera uzten ari da.

Min fisikoa eragiten duten zigorrak. Zigor fisikoek, hala nola zigor gisa ariketa nekagarriak egitera behartzeak, min fisikoa eta emozionala eragin dezakete, eta ez dira onargarriak kirolean.

Kasu horiek guztiek ondorio larriak izan ditzakete kirolarien osasun fisiko eta mentalean, eta garrantzitsua da modu serioan ekitea eta kirolean edozein tratu txar fisiko prebenitzeko eta ezabatzeko neurriak hartzea.

Tratu txar emozionalak: Kritikak, irainak, sarkasmoa, larderiak eta/edo iseka errepikatuak. Tratu txar emozionalak kalte psikologikoa eragiten duten hitzeko edo hitzik gabeko ekintzen bidez adierazten dira, hala nola, etengabeko kritikak, irainak, sarkasmoa, larderiak edo adingabeari zuzendutako laidoak.

Espektatiba handiegiak eta presioa. Espero denean adingabeak bere gaitasunetatik edo garapenetik haratago dauden errendimendu-mailak lortzea, horrek gehiegizko presioa eta antsietatea sortzen ditu, kaltegarria izanda bere ongizate emozional eta fisikorako.

Kirol-lorpenei bakarrik lotutako balorazioa. Kirol-arloan adingabe baten balioa lortzen dituen lorpenen arabera soilik neurtzen denean, presio eta estres handiko giroa sortzen da, kaltegarria izan daitekeena haren autoestimurako eta osasun mentalerako.

Etengabeko gaitzespen-egoerak. Adingabea behin eta berriz lehiaketetatik edo entrenamenduetatik kanpo uztea, eta bere jardunari buruzko etengabeko balorazio negatiboak egitea tratu txar emozionalen modu bat da, bere autoestimuan eta ongizate emozionalean eragin handia izan dezakeena.

Zigor fisikoko edo umiliazio publikoko mehatxuak. Adingabeak ezarritako itxaropenak betetzen ez baditu zigor fisikoekin edo umiliazio publikoekin mehatxatzea hertsadura emozionaleko modu bat da, eta horrek kalte nabarmena eragiten dio bere ongizate psikologikoari eta emozionalari.

Justifikaziorik gabe taldea isolatzea. Adingabeko bati bere taldekideekin arrazoi justifikaturik gabe entrenatzea eragozte, horrela adingabea gainerako taldekideengandik isolatuz, bere osasun emozionalari eta gizarteratzeari eragiten dioten bazterketa, bakardade eta arbuiohsentimenduak sor ditzake.

Beste kirolari batzuekiko etengabeko alderaketak. Adingabea beste kirolari batzuekiko etengabeko alderaketak egitea, besteen aldean berak dituen ustezko gabeziak nabarmenduz. Horrek adingabearen autoestimua eta konfiantza kaltetzen dituen giro toxikoa sor dezake.

Isilik egotea. Adingabea gutxiestea, egoera horretan jarraitzea beste aukerarik izan ez dezan, edozein motatako xantaiekin beldurtzen duten mehatxuekin.

Funtsezkoa da parte-hartzaile guztiekiko babesa, motibazioa eta errespetua sustatzen dituen kirol ingurune bat bultzatzea, kalte emozionala eragiten duten praktikak saihestuz.

Sexu-abusua: Kontaktu fisikorik gabe: hitzeko sedukzio esplizitua, sexu-organoen esposizioa sexu-plazerra lortzeko, masturbazioak edo sexu-egintzak adingabearen aurrean, bera begira ari dela jakinda eta sexu-kitzikapenari bilatzen.

Sexu-laidoa: adingabearen sexu-organoak nahita ukitzea. Ukitze hori adingabeak helduari egin diezaion behartzea, animatzea edo baimentzea.

Sexu-kontaktua genitala: penetrazioa digitala edo objektuekin, ahoko sexua edo uzki/baginako penetrazioa.

Adingabea sexu gogobetetasuneko objektu gisa erabiltzen den edozein egoera.

Abusu fisikoa/zabarkeria: Muturreko baldintza klimatikoekin ekipamendu egokirik eta beharrezko prebentzio-neurririk gabe entrenatzea, sor dezakeen osasunerako kaltearen jabeturik egonik.

Adingabea gaixotasun- edo lesio-egoeran lehiatzera behartzea.

Jazarpena: Kirol talde edo erakunde bateko kide batek edo batzuek lankide ahulago bati eraso edo larderia fisikoa, ahozkoa edo soziala nahita egitea.

Entrenamendu-lekuan bertan, klubean eta/edo kanpoan egin daiteke, baita teknologia berriak erabiliz ere, eta kirol-inguruneke, klubeko edo beste arlo batzuetako pertsonak har dezakete parte.

Bullyinga: nahi ez diren jokabide oldarkor fisikoak, ahozkoak edo psikologikoak dira, gazteen artean behin eta berriz gertatzen direnak, eta biktimari kalte fisikoa, emozionala, soziala edo hezkuntzazkoa eragiten diotenak.

Ziberbullyinga: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKTak) erabiltzea bullyinga eragiteko, testu-mezuen, sare sozialen, telefono mugikorraren, argazkien, bideoen eta abarren bidez.

Grooming: Adingabearen konfiantza bereganatzeko eta eduki sexuala duten argazkiak edo bideoak bidaltzeko estutzeko, pertsona heldu batek nahita hasitako ekintzak.

Zabarkeria: Adingabearen arduradunek behar bezalako zaintza eta arreta ez ematean datzan indarkeria mota bat da. Hau da, adingabearen oinarrizko beharrak, fisikoak zein psikologikoak ez asetzea.

Bere buruari eragindako indarkeria. Indarkeria autoinfligidotzat jo daitezke, besteak beste, honako ekintza hauek: bere buruaz beste egitea, horren saiakera eta ekintza suizidak. Autolesioak. Elikadura nahasmenduak. Bere buruari inposatutako gaintrenamendua.

Genero adierazpen edo identitateagatiko jazarpena. Adierazpen arrazoiengatik edo genero identitateagatik duintasunaren aurka egiteko eta larderiazko, etsaitasunezko, apalesgarritzko, iraingarritzko edo ingurunea ez atsegina sortzeko helburuarekin egiten den edozein jokabide edo portaera.

Mota honetako jokabideen adibideak: Trans pertsona bat (transgeneroa, transexuala...) behar duen bezala deitzeari uko egitea edo identifikatzen den generoari ez dagozkion artikulua edo izenordainak nahita erabiltzea.

Komun/aldagela batean egoteagatik genero adierazpen edo identitate ez-normatiboak dituzten pertsonak kanporatzea eta/edo zalantzan jartzea.

Pertsona baten genero adierazpenari edo identitateari dagozkien gaitasunak, trebetasunak eta potentzial intelektuala gutxietzea.

Umore transfoboa edo interfoboa erabiltzea edo genero adierazpen edo identitateagatik ekarpenak, iruzkinak edo ekintzak alde batera uztea.

Haurren indarkeria-egoeretan konplizeek berebiziko garrantzia dute kirol esparruan. Ekintza ezak edo isiltasunak ondorio esanguratsuak izan ditzakete biktimentzat.

Konplizetzat hartzen dira indarkeria egoera baten berri izanda, horren inguruan neurririk hartzen ez duten pertsonak.

Kirol-arloan erabakiak hartzeko postuetan daudenen jarrera pasiboek, ukapenak edo isiltasunak jazarpenaren eta abusuaren ondorio psikologikoak larriagotu ekar ditzakete. Konplizeen ekintzarik ezaren ondorioz, biktimek pentsa dezakete jokabide horiek legezkoak edo sozialki onargarriak direla, eta kirolean parte hartzen duten pertsonak ez dutela horiek desagerrarazteko ahalmenik.

Kirolari bat edo beste kirol agente bat tratu txar fisiko, psikologiko edo sozialen biktima izaten ari dela

susmatzen duen edo horren ebidentzia duen edozein pertsonak gertatutakoa jakinarazi beharko die kirol-erakundeko arduradunei (horiek adingabea babesteko ordezkariari jakinaraziko diote) edo agintari eskudunei, larrialdi-kasuetan hartu beharreko ekintzen kalterik gabe.

Kirol-jarduera lehiakorraren barruan.
Entrenamenduetan.
Proba medikuetan.
Arreta fisioterapeutikoetan.
Kirol-egoitzetan.
Aldageletan.
Ingurune digitalean.
Joan-etorrietan.
Kanpoko txapelketetan.
Kanpoko ostatu-gaueetan.
Eguneroko kirol-jardueratik kanpoko arloetan

4.- Adingabeak babesteko ordezkaria

HNIBBILoren 48. artikulua araberak, adingabeekin kirol eta aisialdi jarduerak egiten dituzten erakunde guztiek babes ordezkariaren (BO) figura izan behar dute.

Hauek dira babes Ordezkariaren eginkizunak:

HNIBBILoren 48. artikulua, eta administrazio publikoek kirol eta aisialdi arloan ezartzen dituzten jarduera protokoloak aplikatzea.

Monitorizazio-sistema bat (erregistroa) ezartzea eta urteko memoria bat egitea.

Erreferentea eta konfiantzazkoa izatea, adingabeek beren kezken berri eman diezaieten.

Protokoloa egitea eta erakundeko estamentu guztietara zabaltzea (familiak, teknikariak, ...).

Protokoloa Eguesibarko Udalaren web orrian eta sare sozialetan argitaratzea.

Teknikarien eta kirolarien artean gatazken konponbide baketsuetarako metodo alternatiboen erabilera sustatzea.

Behar diren neurriak hartzea kirola eta aisialdia espazio irekia, eta adinagatik, arrazagatik, desgaitasunagatik, sexu orientazioagatik, sexu identitateagatik edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialengatik diskriminaziorik gabea izan dadin.

Adingabeei, haien familiei eta profesionaleri zuzendutako irain eta adierazpen eraingarri eta diskriminatzaileak erabiltzearen arbuioa lantzea.

Adingabeen prestakuntzaren eta garapen integralaren alderdi guztietan parte-hartze aktiboa sustatzea.

Kirol-erakundeen, gurasoen, legezko tutoreen eta abarren arteko harremanak eta komunikazioa sustatzea eta indartzea.

Haurren eta nerabeen prebentzioari, detekzio goiztiarrari eta babesari buruzko prestakuntza-planak sustatzea, kirol erakundeetan lan egiten duten langileentzat nahiz ikasleentzat. Lehentasuna emango zaie indarkeria-egoerak detektatzeko eta horiei erantzuteko trebetasunak eskuratzeko prestakuntza planak. Gurasoen eta tutoretza, zaintza edo harrera eginkizunak betetzen dituzten artean sustatu beharko da prestakuntza hori.

Garaiz detekta dadin lan egitea eta adingabeen aurkako indarkeria egoera potentzialei buruzko

begirada kritikoa sustatzea. Batez ere, kirol arloko eragile guztiak bereziki jakitun eta sentiberak izan daitezten adingabeak biktimizatzeko arriskua dagoen egoeretan.

Hauk dira babes-ordez kariaren betebeharrak:

Sexu-delituen ziurtagiri negatiboa izatea.

Haurrak eta nerabeak babesteko prestakuntza egokia jaso izana.

Gertatzen diren kasuen eta haurren eta nerabeen osotasuna arriskuan jartzen duten jokabide kodeak ez betetzearen berri ematea batzorde eskudunari eta, hala badagokio, gai horretan eskumena duten agintariei.

Erakundearen arriskuen ebaluazioak egitea eta egon daitezkeen indarkeria-arriskuak txikiagotzeko plan bat garatzea.

Eguesibarko kirol jardueretan parte hartzen duten kirolarientzako berariazko arauak ezartzen dituzten mekanismo gisa jokabide kodeak sortzea. Arau horien helburua da protokolo hau behar bezala aplikatzen laguntzea eta haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osoki babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan ezarritako helburuak lortzea.

5.- Aplikazio arloak eta erantzukizunak

Eguesibarko Udalak ingurune seguruak eta haur eta nerabeekiko tratu onekoak eraikitzeko lan egiteko konpromisoa hartu du.

Bereziki, konpromisoa hartzen du indarkeria dakarten portaeren prebentzioan lan egiteko, horiek agertzea saihesten saiatuz eta gerta daitezkeen salaketa eta kexei aurre eginez, eta honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Haur eta nerabeen partaidetza aktiboa sustatzea, haien prestakuntzaren eta garapen integralaren alderdi guztietan.
- Bure erakundearen egiten diren kirol eta aisialdi jarduerak programatzea eta diseinatzea, adingabeen eskubide eta askatasunen errespetuan oinarrituta, sexu eta genero aniztasuna, berdintasuna, diskriminaziorik eza eta indarkeria mota guztien debekua barne.
- Kirol praktikan, jarduera fisikoa, kultura eta aisialdia ez daitezkeen izan diskriminazio egoera bat adinagatik, arraza edo etniajatorriagatik, desgaitasunagatik, sexu orientazioagatik, sexu identitateagatik edo generoadierazpenagatik, edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialengatik, behar diren neurriak hartzea. Haur eta nerabeekin berarekin eta haien familia eta profesionalekin lan eginez, irain eta adierazpen iraingarri eta diskriminatzaileak erabiltzearen aurka.
- Kirol erakundearen eta aisialdiko erakundearen arteko, gurasoekiko edo tutoretza, zaintza edo harrerako eginkizunak betetzen dituztenekiko harremanak eta komunikazioa sustatzea eta indartzea.
- Haurrak eta nerabeak kirol eta aisialdi arloetako indarkeriaren aurrean modu integralean babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 47. artikuluan aipatzen diren jarduera protokoloak aplikatzea.
- Ezarritako jarduera-protokoloa zabaltzea eta aplikatzea.
- Adingabeek beren kezkak adierazteko erabil dezaketen babes ordez kariaren figura izendatzea. Ordez kari hori arduratuko da ezarritako protokoloak zabaltzeaz eta betetzeaz, bai eta haurren edo nerabeen aurkako indarkeria egoeraren bat detektatu den kasuetan eman beharreko urratsei hasiera emateaz ere.

- Agintari eskudunei delitu diren indarkeria-kasuak gertatzen direnean informazioa jakinaraztea.
- Zerbitzuak ematen dituzten langileek, aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren arabera, sexu delituri ez izatearen ziurtagiria dutela bermatzea.
- Haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideei buruzko hasierako eta etengabeko prestakuntza espezializatua sustatzea adingabeekin ohiko harremana duten profesionalentzat, desgaitasuna duten haur eta nerabeei behar bezala arretea emateko.
- Erakundeetan aurkeztutako laguntza-eskaerak azkar eta eraginkortasunez ebaztea.
- Indarkeriazko edozein jokabideren berri eman duten biktimak edo hirugarren persona batek babesteko neurriak hartzea.
- Kasu posible batekin lotutako dokumentazioaren konfidentzialtasuna eta zaintza egokia bermatzea, datu pertsonalak babesteari buruzko araudian xedatutakoaren arabera. (3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa).
- Monitorizazio-sistema bat ezartzea, adingabeen babesari dagokionez aurreko protokoloak betetzen direla ziurtatzeko.
- Federazioei, kirol eta aisialdi erakundeei eta profesionalei, boluntarioei, sortutako politikak eta protokoloak bete ditzatela eskatzea.
- Komunikazio eta salaketa bideak erraztea, profesionalei, erakundeei edo haurrei eta nerabeei indarkeria egoeren salaketak jakinarazteko.
- Erakundeei, federazioei, klubei eta pertsoneri aholkularitza eta prestakuntza egokia ematea.

6.- Prebenitzeko jarduerak jarduerak eta arriskuen analisia

Adingabea babesteko ordezkari bat izendatzea, Eguesibarko Udaleko Haur eta Familia Zerbitzuarekin batera koordinatuta.

Kirol espazioen, irudien eta bideoen erabilera seguruko protokolo espezifikoak sortzea eta zabaltzea.

Protokoloa prestatzea eta erakundeko estamentu guztietara zabaltzea (familiak, teknikariak, kirolariak).

Administrazio publikoek kirolaren eta aisialdiaren arloan hartzen duten indarkeriaren aurrean haurrak eta nerabeak osoko babes emateko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 47. artikuluan aipatzen diren jarduerak-protokoloak aplikatzea.

Protokoloa Eguesibarko Udalaren web orrietan eta sare sozialetan argitaratzea.

Haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideei buruzko prestakuntza espezializatua, hasierakoa eta jarraitua ematea adingabeekin ohiko harremana duten profesionalei, HNIBBILO ren 5. artikulua arabera.

Monitorizazio sistema bat ezartzea, adingabeen babesari buruzko aurreko protokoloak betetzen direla ziurtatzeko.

Bere jarduerak Eguesibarko klub eta erakundeetako adingabea babesteko ordezkariarekin koordinatzea.

Behar diren neurriak hartzea kirola, jarduera fisikoa, kultura eta aisialdia adinagatik, arraza edo etnia jatorriagatik, desgaitasunagatik, sexu orientazioagatik, sexu identitateagatik edo genero adierazpenagatik, edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialengatik ez daitezzen izan diskriminazio egoera bat. Haur eta nerabeekin berarekin eta haien familia eta profesionalekin, irain eta adierazpen iraingarri eta diskriminatzaileak erabiltzearen aurka lan eginez.

Haur eta nerabeek beren prestakuntzaren eta garapen integralaren alderdi guztietan parte hartze aktiboa izan dezaten sustatzea.

Kirol- rakundeen eta aisialdiko erakundeen arteko, haur eta nerabeen gurasoekiko edo tutoretza, zaintza edo harrerako eginkizunak betetzen dituztenekiko harremanak eta komunikazioa sustatzea eta indartzea.

Desgaitasuna duten haur eta nerabeei arreta egokia emateko prestakuntza sustatzea.

Entrenatzaile guztiek titulazio egokia dutela eta sexu-delituen ziurtagiri negatiboa dutela egiaztatzea.

Kaltea edo indarkeria jasateko arriskuak edo balizko arrisku egoerak aztertzea: indarkeria kasu izatera iristen ez diren desegokiak izan daitezkeen jokabideak, baina gaizki interpreta daitezkeen edo arrisku potentzialak ekar ditzaketen egoerak eta jokabideak aztertzea eta saihestea. Edo sen onetik adingabeari deserosotasuna, ezinegona edo larritasuna eragin diezaiokeen beste edozein.

ARRISKU ANALISIA			
KIROLARI ADINGABEENTZAKO KALTEAREN ARRISKU POTENZIALA	KALTEA GERTATZEKO PROBABILITATEA (TXIKIA, ERTAINA, HANDIA)	BEHARREZKO AGIRIAK EDO PROZEDURA	EKINTZAK
TXAPELKETETAN PARTE HARTZEKO JOAN-ETORRIAK			
Ekitaldietan parte hartzeko adingabeen lekualdatzeak (entrenamenduak, partiduak, lehiaketak, ...)	HANDIA	Adingabeko jokalariei joan-etorrietan laguntzeko protokoloa	1) Adingabe bat ez da inoiz bakarrik geratu behar garraioko profesional batekin. 2) Beti heldu bat gutxienez. 3) Garraibide ofizialak erabiltzea. 4) Adingabeak ez dira kirol langileen garraio pribatuan eraman behar.
Gidarien babes kontrolak	HANDIA	Jokabide kodeak	Aurrekari penal eta sexu-delituen ziurtagiriak.
Etxetik kanpoko bidaia eta irteerarako jarraibideak	ERTAINA	Adingabea lekualdatzeko Guraso edo legezko tutorearen baimena	Bidaiaren deskribapena, ostatura, iraupena, joateko eta etortzeko ordutegiak, etab.
KOMUNIKAZIOA ETA SARE SOZIALAK			
Adingabeen sare sozialen erabilera	HANDIA	Adingabe kirolarien jokabide kodea	Adingabeek elkarri eragin diezaioten sustatzea
Helduen sare sozialen erabilera	HANDIA	1) Langileen eta boluntarioen jokabide kodea. 2) Helduentzako komunikazioei eta adingabeen irudi-eskubideari buruzko gomendioen gida. 3) Adingabeen irudiak erabiltzeko baimena	Sare sozial pertsonaletan ez argitaratzea
INGURUNE SEGURUAK			
Instalazioen erabilera	ERTAINA	Baimendutako eta baimendu gabeko jokabideak deskribatzen dituzten kartelak	Instalazioen segurtasuneko jardunbide egokiak jarraitzea
Dutxak eta aldagelak	HANDIA	Aldagelak erabiltzeko gida	1) Mugikorra erabiltzearen debekua. 2) Aldagela bereziak kirol-langileentzat eta adingabeentzat. 3) Beste edozein ezin da

			sartu aldageletan. 4) Aldatzen ari direnean barruan ez egon.
Logelak eta ostatuak	ERTAINA	1) Adingabeen jokabide-kodea. 2) Kirol-langileen eta boluntarioen jokabide-kodea.	1) Heldu bat eta adingabe bat gela ez partekatzea. 2) Helduek adingabeen geletara egiten dituzten bisiten kontrola.
Bulegoak, bilera-gelak edo fisioterapia-gelak	HANDIA	Gune itxiak erabiltzeko gida	1) Gune itxietan adingabearen eta helduaren arteko bilerak saihestea. 2) Pertsona heldu bat baino gehiago egon behar da beti. 3) Adingabe batekin fisio bakar bat badago, utzi atea irekita. 4) Ez itxi gelak giltzekin.
Gune komunak	ERTAINA		1) Langileen txandatzeak. 2) Adingabeek elkarri eragin diezaioten sustatzea

7.- Esku hartzeko jarduerak

Indarkeriaren biktima den edo egoera horien berri duen edonork, ahoz edo idatziz eskatu ahal izango du laguntza, babes-ordezkariekin harremanetan jarrita.

Prozedura orokorra honako hau izango da:

1º.-Babes-ordezkeriak, laguntza-eskaera jasotzen duenetik, gehienez ere hiru lan eguneko epean hasiko du prozedura. Prozedura formalak eskabidea idatziz aurkeztea galdatzen du. Babes-ordezkeriak erreklamazioaren helburua den pertsonari eta berari egozten zaion jokabide iraingarriaren berri emango dio. Babes-ordezkeriak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko haurtzaroaren eta familiaren programari ere luzatuko dio informazioa.


2º.-Babes-ordezkeriak, inplikaturako pertsona guztien intimitaterako eta duintasunerako eskubidea errespetatuz, bilera bat egingo du alde bakoitzarekin, bai eta balizko lekukoekin ere, gertatutakaren inguruko informazio guztia jasotzeko.

3º.- Kasu arinen bat izanez gero, bitartekaritza erabiliko da gatazka konpontzeko.

4º.- Babes-ordezkeriak, akusazioaren larritasuna kontuan hartuta, erakundeko organo eskudunari, egokitzat jotzen dituen kautelazko neurriak hartzea proposatuko dio. Hartutako neurriek ezin izango dituzte inolaz ere kaltetu ustezko biktimak kirol edo aisialdi jarduera garatzeko baldintzak.

5º.- Babes-ordezkeriak txosten bat egingo du jasotako ondorioekin, eta erakundeko organo eskudunari helaraziko zaio, hala badagokio, dagozkion jarduerak egin ditzan.

6º.- Protokolo honetan jasotako egoera batzuk delitu gisa tipifikatuta daude Zigor Kodean, eta salatzaileari jakinarazi behar zaio Fiskaltzara jotzeko aukera duela. Kasu horretan, prozedura hau edozein administrazio-instantzian edo instantzia judizialetan jar daitezkeen beste ekintza batzuen artean abiaraziko da.



8.- Jarraipen jarduerak (monitorizazioa)

Kasuen jarraipena egingo da.

Inplikaturako pertsonak babesteko ahalegina egingo da, eta datuen konfidentzialtasuna bermatuko da.

ZEREGINAK	DATA	EKINTZAK
Babeserako delegatua izendatzea		I. eranskina beteta izatea
Protokoloa onartu eta sinatu		Onarpenerako akta eginda izatea
Protokoloaren zabalkundea		Argitaratu den webgunerako esteka Erakundeak familiekin, kirolariek, entrenatzaileekin... egindako zabalkunde-ekintzak
Sexu-delituen ziurtagiriaren eskaria		Erregistratuta
Babes Ordezkariaren prestakuntza		Egindako ikastaroen zerrenda
Haur eta nerabeekin lan egiten duten pertsona guztien prestakuntza		Egindako ikastaroen zerrenda
Kasuen monitorizazioa		Erregistroa (urteko txostena)
Besterik		

